

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

DIPUTATU NAGUSIA

Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusia

Gipuzkoako Foru Aldundiak eraturako Anton Abbadia sariaren 2020. urteko edizioaren oinarri arautzaileak eta deialdia.

Diputatu nagusiak ondoko foru dekretua eman du 2020ko maiatzaren 7an:

Gipuzkoako Foru Aldundiak 1996ko azaroaren 29an emandako foru aginduaren bitartez (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 242 zk., 1996ko abenduak 17) Anton Abbadia saria sortu zuen, euskararen normalizazioaren aldeko lanetan nabarmendutako pertsona edo elkarten jarduna jende aurrean aitortu eta saritu nahirik.

Aipatutako foru agindu horren bigarren puntuak xedatzen zuenez, Anton Abbadia sariaren deia, oinarriak eta jasotzaile izan daitezkeen elkarte edo pertsonen zehaztapena jendaurrean argitaratu behar dira.

Horregatik guztiagatik, 3/2019 Foru Dekretuak, ekainaren 19koak, eta 19/2019 Foru Dekretuak, uztailaren 1ekoak, esleitutako eskumenak erabiliz, diputatu nagusiak

EBATZI DU

Lehen. Anton Abbadia sariaren deia egitea 2020. urterako, euskararen erabilera sustatzeko alorrean nabarmendu izan diren pertsona edo elkarten jarduna saritzeko asmoz.

Bigarrena. Anton Abbadia sariaren 2020ko edizioa gidatuko duten oinarri arautzaileak onartzea, eranskinean jasotakoaren arabera.

Hirugarrena. Anton Abbadia saria aurtengo edizioan 2020ko abenduaren 2an emango da.

Laugarrena. Anton Abbadia sariaren 2020ko edizioan hautagaiak aurkezteko epea irailaren 17an amaituko da.

Foru dekretu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuak foru dekretu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez dezakete Donostiako Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, interesatu partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertze hautazko errekurtsioa aurkezteko diputatu nagusi honi, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsio aurkez daiteke.

Donostia, 2020ko maiatzaren 7a.—Juan Jose de Pedro Alonso, Diputatu Nagusiaren Alorreko idazkaria. (2063)

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DIPUTADO GENERAL

Dirección General de Igualdad Lingüística

Bases reguladoras y convocatoria de la edición del año 2020 del premio Anton Abbadia de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

El diputado general, con fecha de 7 de mayo de 2020, ha dictado el siguiente decreto foral:

La Diputación Foral de Gipuzkoa creó mediante Orden Foral de 29 de noviembre de 1996 (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 242, 17 diciembre 1996) el premio Anton Abbadia, dirigido a reconocer la labor desarrollada por personas y entidades que hayan destacado en la defensa e impulso del uso social del euskera.

Conforme a lo dispuesto en el artículo segundo de la citada orden foral, se deben hacer públicas la convocatoria del premio Anton Abbadia, sus bases y las personas o entidades que pueden optar a él.

En su virtud, el diputado general, de acuerdo con las competencias atribuidas mediante el Decreto Foral 3/2019, de 19 de junio y el Decreto Foral 19/2019, de 1 de julio,

RESUELVE

Primero. Convocar la edición de 2020 del premio Anton Abbadia, cuya finalidad es reconocer la labor efectuada por entidades o personas físicas a favor de la promoción del uso del euskera.

Segundo. Aprobar las bases reguladoras de la edición de 2020 del premio Anton Abbadia, que se acompañan como anexo.

Tercero. El premio Anton Abbadia correspondiente a la edición del presente año será entregado el 2 de diciembre de 2020.

Cuarto. El plazo de presentación de candidaturas en la edición 2020 del premio Anton Abbadia finalizará el día 17 de septiembre.

El presente decreto foral es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer contra el mismo recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, las personas interesadas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante este diputado general, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 7 de mayo de 2020.—El secretario del Área del Diputado General, Juan Jose de Pedro Alonso. (2063)

ERANSKINA

Gipuzkoako Foru Aldundiak eraturako Anton Abbadia sariaren 2020. urteko edizioaren oinarri arautzaileak.

1. Xedea.

Oinarri hauen xedea da Anton Abbadia sariaren 2020. urteko edizioaren deialdia egitea.

Anton Abbadia sariak euskararen gizarte erabilera babestu, sustatu edo hedatzeko zereginetan nabarmendu diren erakunde, elkarte edo pertsona fisiko nahiz juridikoak aitortuko ditu.

Saria aitortzeko lan edo jardueraren kalitatea eta esanahia balioetsiko dira, eta euskararen normalizazioaren edozein alorretan egindako ekarpena.

Halaber, saria aitortzerakoan oso gogoan izango da pertsona edo elkartearen ibilbidea eta jarraitutasuna euskararen alorrean.

Saria jendaurreko ekintza batean emana izango da, 2020ko abenduaren 2an.

2. Sariaren edukia.

Sariaren ikurra euskal artista gazte batek egindako obra bat izango da.

3. Baldintzak.

Anton Abbadia sarirako hautagaiak aurkezteko baldintza hauek kontuan izan behar dira:

– Hautagaia pertsona fisikoa izatekotan, bizirik direnen aldeko proposamenak besterik ez dira onartuko.

– Aurkeztutako hautagaiak gipuzkoarrak izan behar dira sortzez edo jardunbidez.

4. Hautagaiak aurkeztea.

Saria jasotzeko hautagaiak aurkeztu ahal izango dituzte:

– Pertsona juridikoek, gutxienez bi erakunde edo elkarteek batera hautagai bakarra babestu eta aurkezten badute.

– Hurrengo puntuan azaltzen den epaimahaiak.

– Gipuzkoako Foru Aldundiak berak.

Epaimahaiak bere iritzia osatzeko bidea izan dezan, hautagaien proposamenetan argi azaldu behar dira aurkeztutako hautagaien merezimenduak, Anton Abbadia sariak dituen helburuei dagokienez.

Hautagaien merezimenduen aldeko dokumentazioa Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiari aurkeztu behar zaio, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu Nagusiaren Alorraren erregistro elektronikoa aurkeztu behar da, helbide honetatik abiatuta:

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/erregistro/nola-erregistratu>.

Hautagaiak 2020ko irailaren 17ra bitarte aurkezten ahal dira.

5. Epaimahaia.

Anton Abbadia sarian aurkeztutako hautagaien merezimenduak epaimahai batek aztertu eta balioetsiko ditu. Epaimahaia honela osatuko da:

– Euskararen alorrean prestigioa duten lau aditu, Gipuzkoako diputatu nagusiak izendaturik.

– Aurreko Abbadia saridun pertsona edo elkartearen ordezkaria.

– Gipuzkoako Foru Aldundiaren Hizkuntza Berdintasuneko zuzendari nagusia izango da epaimahaiko idazkari; hizpidea izango du, baina botorik ez.

Adierazitako kideek izendatuko dute, beren artean, epaimahaiaren buru lanak egingo dituenak.

ANEXO

Bases reguladoras de la edición de 2020 del premio Anton Abbadia de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

1. Objeto.

Es objeto de las presentes bases la convocatoria de la edición del año 2020 del premio Anton Abbadia.

El premio Anton Abbadia es un reconocimiento a las instituciones, entidades, personas físicas o jurídicas destacadas por su actividad en favor de la conservación, promoción y normalización del uso social del euskera.

Para la concesión del premio se tendrán en cuenta la calidad y la significación de la obra o actividad, y su aportación en cualquier ámbito de la normalización del euskera.

En el reconocimiento del premio será tenida en cuenta, igualmente, la trayectoria de la persona o entidad participante en el ámbito del euskera.

El premio será entregado en un acto público a celebrar el 2 de diciembre de 2020.

2. Dotación del premio.

El premio consistirá en una obra realizada por una persona joven artista vasca.

3. Requisitos.

Se tendrán en cuenta los siguientes criterios a la hora de presentar candidaturas al premio Anton Abbadia:

– Cuando el objeto de la candidatura sea una persona física, solo se admitirán propuestas a favor de personas vivas.

– Las candidaturas propuestas han de ser guipuzcoanas, por su origen o actividad.

4. Presentación de candidaturas.

Podrán presentar candidaturas a este premio:

– Las personas jurídicas, siempre que se reúna el aval de al menos dos de ellas en favor de una misma candidatura.

– El jurado que se señala en el apartado siguiente.

– La propia Diputación Foral de Gipuzkoa.

A fin de que el jurado pueda valorar la trayectoria en la defensa de los objetivos perseguidos por el premio, las propuestas deberán ir acompañadas de los méritos que concurran en la candidatura.

La documentación en defensa de las candidaturas deberá presentarse a la Dirección General de Igualdad Lingüística, en el registro electrónico del Área del Diputado general de la Diputación Foral de Gipuzkoa, partiendo de la siguiente dirección:

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/erregistro/nola-erregistratu>.

Las candidaturas podrán presentarse hasta el 17 de septiembre de 2020.

5. Jurado.

Los méritos de las candidaturas presentadas al premio Anton Abbadia serán examinados y valorados por un jurado compuesto por:

– Cuatro personas de reconocido prestigio en el mundo del euskera, designadas por el diputado general de Gipuzkoa.

– La persona o representante de la entidad premiada en la anterior edición Abbadia.

– La directora general de Igualdad Lingüística de la Diputación Foral de Gipuzkoa, que actuará como secretaria del jurado, con voz pero sin voto.

Los miembros señalados designarán la presidencia del jurado.

Epaimahaia osatzerakoan, ordezkaritza orekatuaren printzipioa gordeko da, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, 1.7 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Epaimahaikideen zerrenda diputatu nagusiaren aginduz erabaki, eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da behar den garaian.

6. Hautagaiak balioestea.

Epaimahaiaren zeregina izango da aurkeztutako hautagaien merezimenduak aztertu eta balioetsi ondoren saritarako proposamena egitea, sariaren helburuak eta hautagai diren pertsona edo elkartearen jardunaren kalitatea eta ibilbidea kontuan izanda.

Laugarren oinarrian adierazi bezala, era batean zein bestean aurkeztutako hautagai guztien kasuan epaimahaiak isilpeko espediente bana osatuko du, aurkeztutako hautagaiaren merezimenduak aztertu eta kreditatzeko behar diren eginbideez. Horretarako, epaimahaiak bere kideen artetik espediente bakoitza osatuko duen epaimahaikide bat bereiz dezake, informazio aldia amaitu ondoren burututako eginbideak eta bildutako frogak epaimahaiari berari aurkez diezazkion.

Behar den hausnarketa eginik, epaimahaiak saria emateko proposamen bat egingo du.

Epaimahaiak egindako bilera guztien akta jasoko du idazkariak.

Epaimahaiak bere proposamena aurkezteko gehienezko epea 2020ko urriaren 30a izango da.

En la composición del jurado se mantendrá el principio de representación equilibrada establecido por el artículo 1.7 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

La composición del jurado se determinará mediante decreto foral del diputado general, que se hará público oportunamente en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

6. Evaluación de candidaturas.

El jurado evaluará las candidaturas presentadas y propondrá las que considere convenientes por la calidad y trayectoria de las personas o entidades en defensa de los objetivos perseguidos por el premio.

Con las candidaturas presentadas conforme a la base cuarta, el jurado instruirá el expediente correspondiente, que será secreto, y en él se practicarán las diligencias necesarias para la investigación y acreditación de los méritos que concurrirán en la persona o entidad propuesta. A tal fin, podrá designarse, de entre los miembros del jurado, una persona instructora que exponga al jurado, una vez finalizada la fase informativa, las diligencias practicadas y los méritos considerados.

Tras la deliberación oportuna, el jurado formulará una propuesta de concesión del premio.

La secretaría levantará acta de las sesiones del jurado.

El plazo máximo para la elaboración de la propuesta por el jurado será el 30 de octubre de 2020.